

BILBO. Zaharren egoitzak



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Arloko itunaren alde, beharginak protestan

Arloko itunaren alde, kontzentrazino bi egin zuten atzo zaharren egoitzetako beharginek. LAB, ELA eta UGT sindikatuak deituta, euren egoerea «jasanezina» dala salatu eben. Eta kontzentrazino bana egin eben Miserikordiako

Etxea eta Kirikiño egoitzetan. Espainiako ituna baztatu, eta Bizkaiko beharginentzat arloko ituna eskatu eutsien Euren, Regepris eta Arpabi patronalei. Lan orduak murrizteko eta soldatak igoteko eskatzen dabe, batez be.

DURANGALDEA. Komunikazinoa

Durango TB astelehenean hasiko da saioak emoten

Durango TB datorren astelehenean hasiko da emititzen, azkenengo hilebete bian hainbat aproba egiten jardun ostean. Emisinoa hasiera baten uhinen bitartez egingo badau be, etorkizunera begira, kable bidez emititzeko asmoa daukie proiektuaren bultzatzaileek. Momentuan, Euskaltel enpreseagaz negoziatan dihardue, Durango TBko zuzendari Alain Salterainek azaldu dauenez.

Durango TBk berak ekoiztutako hiru orduko programazioagaz abiatuko dabe, UHFko 54. kanalean. Emisinoa ordu laurden iraungo dauen *Gaur berri* albistegiagaz hasiko dabe, 20:00etan. Euskeraz izango da albistegi hori. Bigarren albistegia, barriz, 20:45etik 21:00ak artekoa, elebiduna izango da. Tartean, *Kirol denbora* saioa emitiduko dabe, gaztelaniaz. Orduerdiko bideoklip progra-

mea, *Topa*, hasiko da 21:00etan; eta, jarraian, *Gau on* magazina. Ordezkarik politikoki bateri alkarrizketea egingo deusie *Gau on* saioan, astelehenean. Eta martitzen, eguazten eta eguenetan hainbat gobicatukaz tertulia egingo dabe. Internet, zinemea eta antzerkia ardatz, atal finkoak be egongo dira. «Las Fellini taldeko kide Juan Carlos Rodriguezek be urtengo dau kalera alkarrizketak egiten, antzerkia egiten», dino Salterainek.

Salterainek nabarmendau dau ekimen pribaua dana, eta elebiduna: «Hasikeratik esan dogu telebista elebiduna izango zala. Telebista bat euskeraz bakarrik egitea gatx-gatxa da diru laguntza barik; baina, horrek ez dau esan gura euskereari lehentasuna emongo ez deusagunik. Saio batzuk euskeraz bakarrik izango dira».

7

NEKAZARITZEA

EHNEk, baserrietan autoenplegua bultzatuguran, ikastaro bat emongo dau

Astelehenean hasi eta urriaren 31 bitartean, Bilbon *Autoenplegu proiektuak landa eremuetan eta dibertsifikazinoa* izeneko ikastaroa emongo deusie EHNE sindikatuak baserrirako posturia egiteko prest dagozan guztiei. Bi dira ikastaroaren helburuak: Sektorearen ganeko informazino orokorra emotea batetik, eta baserrian hasteko asmoa daukienei oinarritzko orientabideak emotea.

Ikastaroaren ostean hasten da benetako prozesua, pausoa emon gura dabenei zelan egin erakustez ganera, egiteko laguntasuna emoten deusielako.

ONDARROA

Kortxeleko mamuen kalejirea egingo dabe 675. urteurreneko ekitaldien barruan

Ondarroako uribilduaren 675. urteurreneko hamabostaldien barruan, hainbat ekitaldi gertau ditue asteburu honetarako. Andra Mari jaietako pertsonaje nagusiek birritan joan gura izan dabe Ondarroara, aurton. Holan, kortxeleko mamuek kalejirea egingo dabe, gaur, Kresalako musika bandegaz batera. Horrezaz ganera, antzerki emonaldia eskainiko dabe Gazte Antzerki Tailerrekoek. Bihar, barriz, mendi urtera eta erromeria egingo ditue. Aitta Piedadetik urtenda, ibilbide historikoa egingo dabe, Ondarroako mugak ezagutzeko.

8